



2000KO MAIATZAREN 25EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi milako maiatzaren hogeita bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Julio Ibañez Urteaga, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Jose Antonio Dopazo Martin.

José Luis Otamendi Romero zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2000ko apirilaren hemezortzian egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN ABANTZEAREN ONARPENA.-

Lazkaoko Udalak sustatu eta Roberto Gartzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek idatzita, 16 Hiri Areako -Zubierreka Industrialdea- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntualaren abantzea dokumentua aurkezten da Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Aldaketa puntual honen helburuak ondorengo hauek dira:

- Gaur egun Barne Eraldakuntzarako Egitasmo Bereziak, zenbait kasutan gaur egungo aprobetxamendua justifikazio gabe jeitsiz, ordezkapen ordenantza ematen dien pabilioen egoera erregularizatu eta konsolidatzea.

- Enpresen gaur egungo beharrei egokitzuz 1 Burutze Unitatearen solairuardeen aprobetxamendu handiagoa posibilitatzea, oin okupazioaren % 25era mugatuz.

EZARRI, S.A. enpresaren finkapena posibilitatzea. Horretarako 16 Hiri Arearen aprobetxamendu osoa handitu behar da eta Hiri lur bezala eta industrial bezala kalifikatutako gunea ere bai.

...///...



...///...

2000ko martxoaren 9ko Alkatetzako Ebazpen bidez Aldaketa Puntual honen aurrerapen lanak jendaurreko erakustaldian jartzea erabaki zuen.

Jendaurreko erakustaldi denboraldian ez da inolako iradokizun eta antolaketarako beste alternatibarik aurkeztu.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko bederatzi botu (EAJ-PNV, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), eta beraz Udala osatzen duten legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, Arau Subsidiarioetako aldaketa puntual honen abantzea onartzea erabakitzen du.

IV.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALAREN HASERAKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udalak sustatu eta Roberto Gartzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek idatzita, 16 Hiri Areako –Zubierreka Industrialdea- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntualaren proposamena dokumentua aurkezten da Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Aldaketa puntual honen helburuak ondorengo hauek dira:

- Gaur egun Barne Eraldakuntzarako Egitasmo Bereziak, zenbait kasutan gaur egungo aprobetxamendua justifikazio gabe jeitsiz, ordezkapen ordenantza ematen dien pabilioen egoera erregularizatu eta kontsolidatzea.
- Enpresen gaur egungo beharrei egokitzuz 1 Burutze Unitatearen solairuarten aprobetxamendu handiagoa posibilitatzea, oin okupazioaren % 25era mugatuz.
- EZARRI S.A. enpresaren finkapena posibilitatzea. Horretarako 16 Hiri Arearen aprobetxamendu osoa handitu behar da eta Hiri lur bezala eta industrial bezala kalifikatutako gunea ere bai.

Udalak, dokumentuaren abantzea jendaurrean jarri zuen hogeita hamar eguneko epean eta denboraldi horretan ez zen inolako iradokizunik aurkeztu.

Udal Osoko Bilkurak, batzarraldi honetan bertan, abantzea onartzea erabaki du.

Abantzearen jendaurreko erakustaldian inolako iradokizunik ez zela aurkeztu ikusirik Arau Subsidiarioen aldaketa proposamen dokumentua idatzi egin da.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko bederatzi botu (EAJ-PNV, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), eta beraz Udala osatzen duten legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

1.- 16 Hiri Areako Arau Subsidiarioetako aldaketa puntual honi haserako onarpema ematea.

2.- Haserako onarpen honi buruzko iragarkia hogeita hamar egunetako denboraldian jendaurrean jartzea, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta El Diario Vasco eta Egunkaria egunkarietan argitaratuz.

...///...



...///...

V.- LAZKAOKO UDALAREN EGINKIZUNA ONTZAT EMATEA.-

Alkateak gaiaren azalpena egiten du. Esaten du udal langile eta zinegotziz osatutako talde batek egindako lanaren ondoren Lazkaoko Udalaren eginkizuna edo misioa izeneko dokumentuaren zirriborroa prestatu zela eta ondoren Udal guztiari egin zitzaizola zirriborro honen azalpena eta orain dokumentu horri nolabaiteko bultzada ematearren Osoko Bilkura honetara ekartzen dela bere onarpenerako.

Onartzea proposatzen den dokumentua honako hau da:

Lazkaoko Udalaren eginkizuna, kalitatezko zerbitzuak eskainiko dituen, herritar guztien beharrei erantzungo dien eta edozein interes-motaren gainetik herritarren eskubideak errespetatuko dituen Lazkaoko herriaren zerbitzurako erakunde publikoa izatea da.

Horretarako, ondoko estrategiak garatuko ditu:

- 1.- Politikarien eta teknikarien lana koordinatuko du, legegintzaldiaren plangintza egin eta beharrei lehentasunak jarriko dizkie, teknikariei planen berri eman eta hautetsitako karguei Udalaren eginkizuna, prozesuak eta antolamendua jakinaraziko dizkie, baterako ikuspegi batekin lan eginez.
- 2.- Eguneroko zereginaren plangintza egingo du, prozesuak eskuordetuko ditu eta hauek arduraz burutzeko autonomia izango du.
- 3.- Talde-lanean arituko da, sailen eta langileen arteko koordinazio-sistemak garatuko ditu eta era positibo eta ireki batean jardungo du, lan egiteko eta aldatzeko gogoz, ilusioz eta gardentasunez eta elkarri lagunduz, zerbitzu ona emateko.
- 4.- Herritarrei entzungo die, beren lekuan jarriko da eta konponbide azkar, zehatz eta egokiak emango ditu.
- 5.- Herritarrekiko erlazioa eta bere inplikazioa areagotuko du eta, horretarako, Udaleko informazioa eta udal-organotarako sarbidea eman eta erretroinformaziorako bideak antolatuko ditu herritarrek Udalaren erabakietan lankidetzan handiagoa izan dezan.
- 6.- Herritarren arazoak eta beharrak sistematikoki bilatu eta beren nahiak aurreikusiko ditu.
- 7.- Zerbitzuetako akatsak aztertu eta herritarren kexak eta kostua murriztuko ditu.

Udalaren ikuspegia ondokoa da:

Herriko giroa hobetzea, adostasuna etorkizunerako funtsezkoak diren gaietan erabakitzeke moduz hartzea eta hobekuntza eta herritarren erakundearekiko konfiantza eta errespetua hobetzea.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du proposamena onartu egingo dutela baina bi gauza esan nahi dituztela: bat, onartzeko prozesuan ez dutela parte hartu beraien bakoitzaren lanen ondorioz ezinezkoa izan zitzaielako eta bi, hemen jartzen duena ondo dagoela baina hau gero bete egin behar dela.

...///...



...///...

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du bere egunean gai honen inguruko bere ikuspegia eman zuela, gauza hauetan, joan etorri bidean etortze fasean dagoela eta geroz eta eszeptikoago, asmoen aitorten soil bat besterik ez dela eta gauza jakinak, baina lan hau egiten aritu direnenganako errespetuz ez dihoala aurka baina ez duela uste askorako balioko duenik.

Estensoro zinegotziak (EAJ-PNV/EA) esaten du egia dela modan dagoen zerbait dela baina bestalde ez dela erraza eta ez duela kalterik gauza hauek idaztea.

Alkateak esaten du egia dela gauza jakinen zerrenda bat dela baina ez dela hain erraza gauza hauek aurrera eramatea.

Guzti hau esan ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ-PNV, EA, EH), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE) proposamena onartu egiten du.

VI.- GOIEKIKO 1999KO KONTUEN ONARPENA.-

Datorren ekainaren 24erako GOIEKIKO Batzar Orokor Arrunterako deialdia egin da eta batzar horretan 1999ko kontuen onarpenera proposatuko da. Hori horrela eta kontu horiek aurrez udal bakoitzak onartu behar dituzenez, Udal Osoko Bilkuraren aurrera aurkezten dira, bere onarpenerako, GOIEKIKO 1999 urteari dagozkien kontuak.

Bestalde eta Batzar horretara Udal zinegotzi guztiak joan baldin baditezke ere Udalaren ordezkari gisa botua izango duen zinegotzia aukeratu behar da eta Alkateak Lazkaoko botua izango duen ordezkaria bera izatea proposatzen du.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak bertaratutako guztien adostasunez GOIEKIKO 1999ko kontuak ontzat eman eta ordezkariari buruzko proposamena onartu egiten du.

VII.- E.F.A.P.E.B.A.E.-

2000ko apirilaren 17an sinatu zen erakunde eta sindikatuen artean 2000 eta 2001 ekitaldietarako Euskadiko Foru eta Toki Administrazioako langilegoaren lan baldintzei buruzko akordioa.

Hau honela, Hazienda, Pertsonal eta Gobernazio Batzordearen proposamenez, Udal Osoko Bilkuraren onarpenera jartzen da 2000 eta 2001 ekitaldietarako Euskadiko Foru eta Toki Administrazioako langilegoaren lan baldintzei buruzko akordio hori, akordioaren kopia bere espedientean aurkitzen delarik.

Akordio horren puntu aipagarrienak hauek dira: 2000. urterako soldaten %3ko igoera (KPI+0,1) eta 2001 urterako 2000ko KPI+0,3; lanaldia asteko 35 ordukoa izango da, eta horrerarekin 2000. urtean lanaldiak gehienera ere 1632 ordu eraginkorreko iraupena izango du eta 2001 urtean 1592 ordutakoa.

Estensoro zinegotziak, Hazienda, Pertsonal eta Gobernazio Batzordeko Presidente gisa, esaten du Alkateak eta berak bi bilera egin dituztela langileen ordezkariekin gai honen inguruan eta bilera horietan soldata igoera eta aseguruaren eguneraketa aplikatzen hastea ados-

...///...



...///...

tu zutela eta bestalde orain arteko urteko ordu kopurua 1672koa zelarik aurtengo 40 ordutako gutxitzea langile bakoitzarekin adostuz egitea, kasu batzutan egunero minutu gutxiago lan eginez eta bestetan jai egunak hartuz, baina beti ere zerbitzuaren kalitatea ez jeistearren baldintzarekin.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) ordu murrizketaren ondorioz sortuko diren hutsuneen estimaziorik egin al den galdetzen du.

Estensoro zinegotziak erantzuten dio esanez hori dela langileen ordezkariekin sortu den Toki Enpleguko Mahaian aztertuko dena, dena den lanpostu bat eta piko dela aurretik estimatzen dena.

Guzti honen ondoren proposamena bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunez, 2000ko apirilaren 17an sinatu zen erakunde eta sindikatuen artean 2000 eta 2001 ekitaldietarako Euskadiko Foru eta Toki Administrazioako langilegoaren lan baldintzei buruzko akordioa onartu egiten du.

VIII.- PRESOEN EUSKAL HERRIRATZEA ALDARRIKATUKO DUEN MARTXA NAZIONALARI BURUZKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Ekainaren 17an presoen Euskal Herriratzea aldarrikatuko duen martxa nazionala hasiko da. Martxa hau Lazkaora uztailaren 1ean iritsiko da eta ahalik eta atxikimendu gehien lortu behar dira martxa eten ez dadin, hau da, martxa hona iristean atxikimenduak eman dituzten talde guztiek 100 metro egin beharko dituzte "testigu" bat eskuan eramanez eta horrela 100 metroka Lazkao zeharkatzea lortzen denean, testigua martxa guztian zehar ibiliko den kamioiko ziegara bueltatuko da eta hurrengo herrira abiatu.

Lazkao barruko martxa burutzen den bitartean plazan dantzari, txaranga eta antzeko ekitaldiak burutzeko asmoa dago, herri osoak parte har dezan.

Horregatik, garrantzitsua da Udaletxearen izenean ere atxikimendua lortu eta 100 metro presoen eskubideen alde egitea.

KATEA ETEN EZ DADIN

2000. urtea. Urte mundiala! Urte santua! Urte bipila! Baina, 100 metroka bizi beharreko urtea!

Orain 2000 urte, jai zuen demokraziak. Zakurrak katua, katuak xagua, xaguak xomorroa ... Hori zen lege bakarra. Jai zuten eskubide guztiek ...!

2000. urtean demokraziari esker, munduak aurrera jo omen du nabarmen ... Leikena!

Gaur, putre, saizuri, bela, mika, sator ta beste, legebiltzarreko lege konplikatuak medio, lasai eta gizen bizi dira denak. Habiak ere zuhaitzetan ahalik eta gertuen kokatzen zaizkie, 100 metro baino gertuago. Euren kontra jotzeak isun latza du ... Eta ez dago gaizki hori dena.

...///...



...///...

Ordea, bazterrean, ziegaren batean, zauriz jositako gizon-emakuma gajoek, jai dute 2000. urte demokrata honetan. Demokrata betidanikoez ez dute ametitzen inongo laguntzik inolako "samariar" bihotzdunik zauritu gajoengana arrima dadin. Artez zaintzen dituzte "kutsatu guztiok", apartean gordeta, herriko habi propiotik ahalik eta urrunen ... Gu, ordea, 100 metro ta 100 metro, denak hurbiltzeko prest!

Legeak lege omen dira: Segun non eta norentzat ... Neurri "galindoa" lasa-lasa batzuentzat, katemotz extu-extua besteontzat ... Hori da demokrazia!

Hitza omen da, herriaren hitza batipat, sakratua eta guztiz errespetagarria. Eztarria kraskaturik dabil euskalduna, aspaldian. Hitza janda majo gizendu denik bada bazterretan. Baina, ez; herriaren mintzoarentzako, ez dago behar beste belarri ...!

- Hitzegin da Legebiltzarrotan presoek eskubideetat ... Norentzat, ordea?
- Bilboko kale beteak eman du hitza, behin eta birritan eta ... Nork jaso du? ... Biba la demokrazia!
- BATERAK hamabostero bildutako jende sorta guztiek, isilean, hor egiten dute berba ozen asko ... Inork egin al dio jaramon zipitzik ere?
- Presoen Solidarioek, Sevillan Giraldira, Zeutan Olentzaro, Langraitzen zintzilik, Madrilan, Parisen, Cadizen Nieto zenaren ohe ondoan, Santiagon ... umorez eta ozenki egin dute berba ... Dena alferrik!
- 9 hilabete luzeko gose-greba etenbako isila, urez ongi purifikatua ... Eta? ... Garizuma luze honek ez al du Pazkorik?
- Hau dena ez al da herriaren hitza, hitz sakratu eta errespetagarria, populu-hitza, demo-hitza ...?
- Hau dena, ordea, "gauerdiko ahuntzaren eztula"-ren pareko hartu izan da Parisen!
- Hau dena, tamalez, "zakurraren putza"-ren pare hartu izan da Madrilan!

"Samariar" saita guztien ahaleginetan, 100 metroka lehiatu gara, 100ka eta aleunka, kilometro asko eginez.

Bestela ezin bada, sakabanatuak, 100 metroka, sokatira etengabe, hurbilduko ditugu etxera. Hiru laurdenen legeak ez daki euskaraz. Preso gaixo eta ezinduen legeak ere ez, ez daki euskaraz. Sakabanaketa medio, erdalerrietan zehar ibili beharrez, euskara ahaztu zaio legedi osoari. Guk gogoratu nahi izan diogu demokraziari, 2000 bider, eta behar bada, beste 2000 bider akordura ekarriz, ozenki: euskal herritarren hitza, hemengo populuaren hitza, hemengo demoaren hitza ez dela jateko! Demokrata betidanikoak omen direnek, Parisen nahiz Madrilan, entzun bezate, belarri duinik badute, mutu geldituko ez den herri honen hitza:

Mesedez, Euskal Presoak, Euskal Herrira, zuen demokraziaren izenean!

...///...



...///...

Euskal Presoak Euskal Herrira! Euskal Herri osoko gehiengo sozial, sindikal zein politikoaren babesa jaso du azken urte hauetan. Halere, euskal presoak eta familiarrok sakabanaketa pairatzen dugun eta herriko plataformak euskal presoak Euskal Herriratzeko, euskal presoen eskubideen defentsan aritzen garen. Urrats berri bat eman behar dugu, Euskal Herria iparraldetik hegoaldera, ekialdetik mendebaldera zeharkatuko duen martxan zure parte hartzea eskatzen dizugu oraingo honetan. Ehun metro egin dezazun, euskal presoen eskubideen defentsan eta Euskal Herriko gehiengoaren borondate defentsan urrats berri bat eman dezazun eskatzen dizugu."

Estensoro zinegotziak, EAJ-PNV/EA koalizioaren izenean, esaten du EH, Batzarre, Ezker Batua, EA, EAJ eta zenbait erakunde sozialek apostu bat egin zutela eta apustu horrek hiru ardatz zituela, alde batetik Lizarrako akordioa, bestetik Batera eta bestetik Udalbiltza. Esaten du baita Lizarrako akordioa gatazka gainditzeko tresna edo prozedura bat izanik nazionalista ez diren alderdiak bide horretara hurbiltzea ez dutela lortu, Batera alderdi hauek presoak hurbiltzearen alde lan egiteko plataforma bat dela eta plataforma honen lehen baldintza giza eskubideen errespetoa zela eta su-etena hautsi zenetik Batera gaur egun indarrrik gabe geldituta dagoela, Udalbiltza bizirik dago baina arazo batekin, lehen kontsentsu bidetik ibili baldin bada ere orain gehiengoaren bidetik dihoala. Esaten du baita ere guzti hau mozioari ezezkoa emango diotela esateko esplikatuta duela baina esanez baita ere beraiek presoen hurbiltzearen alde daudela. Eta ez dutela mozio hau onartuko lehen aipatu duen plataforma horrek ez duelako funtzionatzen eta ekimen hau ez delako beraiekin koordinatua izan.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du ez dutela justifikazio hori onartzen ze ez dutela ezer egiten eta zerbait egin beharra dagoela. Presoen egoera ez dela aldatu.

Estensoro zinegotziak esaten du hori lehen ere, Batera bizirik zegoenean, inoiz gertatu zela eta orduan ere gauza bera esaten zitzaiela, ekimena koordinatuta ez baldin bazegoen ez zela apoiatuko.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du legea betetzeari dagokionean alde dagoela baina bestalde akordioetara iristeko ez dela unerik egokiena.

Irastortza zinegotziak esaten du kontsentsua edo ez kontsentsua, beraiek ere gobernu batzordean ez daudela baina hori horrela izanda ere ez dutela aurrekontuak onartzeko inolako lotsarik izan eta alderdiak alderdi era pertsonalean besterik ez bada ere, 100 metro egitea ez dela beste munduko gauza eta onartzeko eskatzen diela.

Bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 4 botu (EH), aurkako 5 botu (EAJ, EA) eta abstentzio batez (PSE-EE) mozioa ez onartzea erabakitzen du.

IX.- BELEN GONZALEZEN ESTRADIZIO EPAIKETARI BURUZKO MOZIOA.-
Mozioak honela dio:

"Datorren ekainaren 21ean Belen Gonzalez lazkaotarrak epaiketa izango du Parisen. Espainiako estatuak eginiko estradizio eskariari erantzunez, honen aritik, Lazkaoko Euskal Herritarrok, dei bat egin nahi die mozio honen bidez, bai herriko instituzioei eta orohar herritar guztiei:

...///...



...///...

1. Urrian, Lazkaoko Udalak, Belen Gonzalezen atxiloketa salatuz mozio bat onartu zuen, atxiloketa hura, ordea, Belenen aurkako eskalada errepresibo baten hasera besterik ez zen izan. Bigarren pausua epaiketa honekin eman dute, ondorioz, epaiketa honen izate antidemokratikoa, salatu nahi dugu, euskal herritar baten giza eskubide oinarrizkoenak urratzen baititu. Bide batez, estradizioak ekarri ditzaken ondorio larriez ere ohartarazi nahi dugu, jakina baita espainiar indar polizialek euskal presoekiko duten jarrera. Belen estraditatzeko badute, tortura eta trau txarrak jasotzeko arriskua bistakoa da.
2. Bigarrenez, estatu frantziar eta espainiarraren jarrerak salatu nahi ditugu, horrelako ekinbideekin Euskal Herriaren eraikitze prozesuan oztupoak jartzen dihardutelako eta era berean, herriari bere hitza eta erabakia ixilarazi nahi dizkielako.
3. Azkenik, Euskal Herriaren eraikuntza prozesuan euskal preso politikoek zeresan haundia daukatelakoan gaude, are gehiago, euskal gizarte osoak bezala prozesu honetan parte hartzeko eskubide osoa dutela aldarrikatu nahi dugu. Eskubide hau gauzatu dadin, bide bakarra euskal preso guztiak, behingoz etxera ekarri ditzaten da. Mozio honen bidez, Euskal Herriko agente politiko, sindikal eta sozial guztiak gonbidatzen ditugu, Euskal Herriaren eraikuntza nazionalen parte har dezaten."

Estensoro zinegotziak, EA/EAJ koalizioaren izenean, esaten du atxiloketa izan zenean atxiloketa hura egiten zen unea ikusita eta atxiloketa hura elkarrizketan partaide izan zen pertsona baten atxiloketa izan zela ikusiz, horrenbeste itxaropen sortu zuen prozesu baten aurka egiten ari zirela, eta horregatik salatu egin zutela. Esaten du baita ere mozio hau aztertzeko une honetan ez dutela mozio honen alde egiteko arrazoirik ikusten, bakar bakarrik Alkateari eskatuko lioketela Belenek bizi duen egoera honen jarraipen berezi bat egitea, bere eskubideak errespetatuak izan daitezzen.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du, lehen esan duen bezala, eskubideen aurretik egoera politikoa jartzen ari direla.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du, lehen esan duen bezala, ukitutakoenganako errespetoa eta elkartasuna adierazten duela, eta epaiketa justu bat eta bere eskubideak errespetatuak izan daitezzen deseo duela eta politiko ikuspegi batetik lehen esandakoan berresten dela.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 4 botu (EH), aurkako 5 botu (EA, EAJ) eta abstentzio batez (PSE-EE) mozioa ez onartzea erabakitzen du.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (EH) esan du aurreko puntuan Belen egoerari horrelako kezka azaldu dutenez, aukera polita daukatela hori demostratzeko eta jarraitzen du esanez Belenek herriko informazioa bidaltzea eskatu duela, Udalbatza Zuekin, jai egitaraua eta abar eta informazio hori bidal diezaioten eskatuko lukeela.

Alkateak erantzuten dio bidaliko zaizkiola.

...///...



...///...

Amundarain zinegotziak esaten du kaletik enteratu direla Diputazioak karta bat bidali duela berak errotondaren handitasunarekin zer ikusirik ez duela esanez.

Alkateak erantzuten dio Diputazioaren karta hori ez zela Udalari zuzendutakoa, eta karta hortan jartzen duena dela errontonda hori egitearena ez dela Diputazioak eskatutako gauza, dena den egitea erabaki denez beraiek arauzkoak diren neurriak izan ditzan eskatzen dutela. Gehitzen du karta horren kopia bat emango zaiela.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko bederatiak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

